

HOGITA ZORTZIGARREN BILERAKO akta

BIZKAIKO INDARKERIA MATXISTAREN BEHATOKIA

Eguna eta ordua: 2023ko irailaren 22a, 10:00etatik 12:00etara

Tokia: POZA LIZENTZIATUAREN KALEA, 7.

- Gai zerrenda:**
1. Ongietorria eta dokumentazioa ematea.
 2. Gai zerrenda irakurtzea.
 3. Aurreko bilerako akta onartzea.
 4. Ordezkarri berriak aurkeztea.
 5. 2022ko arretari buruzko zifrak aurkeztea.
 6. Garatutako "Zifrak udalerri" tresnaren aurkezpena.
 7. Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren ikerketa berriak.
 8. Galde-eskeak.
 9. Agurra eta hurrengo jarduketak.

Bertaratuak: **Lehendakaria:** Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko foru diputatua: M. Teresa Laespada andrea

Lehendakariordea: Berdintasuna Sustatzeko zuzendari nagusia: Patricia Campelo andrea

Idazkaria: Berdintasuneko goi mailako teknikaria: Alixe Rodríguez andrea

Kideak:

- BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Berdintasuna Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia): Oscar Seco jauna

- EMAKUNDE - Emakumearen Euskal Erakundea: Josune Irabien andrea

- EJko Segurtasun Saila: Ana Iturriaga andrea

- EJko Osasun Saila: Nerea Urien andrea

- Udalerriak eta mankomunitateak - EUDEL:

o Gordexolako Udala: Ángela Eguía andrea

o Barakaldoko Udala: María Solar andrea

- Elkarrekin eta erakundeak:

o Genero-indarkeriaren eremuak:

- ARGITAN Emakumeentzako Aholku Etxea: Mireia Saiz andrea

o Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua ordezkatzuz:

- ETENGABE JABEKUNTZA elkarte: María Manuela López andrea

Ez bertaratzeagatik - BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (Berdintasuna Sustatzeko



**desenkusatu
dira**

Zuzendaritza Nagusia): Cristina Sarduy andrea

- BFAko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna sustatzeko saila (Lankidetzarako eta Dibertsitateko Zuzendaritza Nagusia): Ignacio Rodríguez jauna

- BFAko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila: Esther Glez. de Audikana andrea

- EJko Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako saila: M. Antonia Olabarrieta andrea

- EJko Hezkuntza saila: Eneko Goenaga jauna

- Udalerrriak eta mankomunitateak - EUDEL:

o Fruizko Udala: Ane Legarretaetxebarria andrea

- Elkarrekin eta erakundeak:

o *Genero-indarkeriaren eremuak*:

- AUZOLAN Laguntza Psikosozialeko Modulua: Marta Dolado andrea

Aztertutako gaiak:

1. Bertaratuei ongietorria egitea, Teresa Laespada andrea arduratu da.
2. Gai zerrenda irakurtzea, Patricia Campelo andrea arduratu da.
3. Aurreko bilkurako akta onartzea, Patricia Campelo andrea arduratu da.
4. Ordezkaritza berriak aurkeztea, Patricia Campelo andrea arduratu da.
5. 2022eko arretari buruzko kopuruak aurkeztea, Patricia Campelo andrea arduratu da.
6. Garatutako "Zifra udalerrira" tresnaren garapenaren aurkezpena, Patricia Campelo andrea arduratu da.
7. Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren ikerketa berriak, Patricia Campelo andrea arduratu da.
8. Bilerari amaiera ematea, 11:45ean, M. Teresa Laespada andrea arduratu da.

BILERAN JORRATUTAKO GAI NAGUSIAK ETA ESANDAKOAK

Esparru gisa:

M. Teresa Laespada andreak bilerari hasiera eman dio, parte-hartzaile guztiei ongietorria eginda.

Behatokiaren balioa nabarmendu du, batez ere, 20 urtez datuak modu sistematikoan, iraunkorrean eta adierazleei eutsita bildu dituelako. Hori ez da erraza esparru horretan aurkitzea, duen intentsitateagatik, iraunkortasunagatik eta zainzagatik. Adierazleak gehituz eta neurri berriak ezarriz joan dira, genero-indarkeriaren ordeztasun indarkeria matxistaren kontzeptua, indarkeria-mota berriak eta abar sartuta. Horrez gain, lantzen jarraitu da ahal izan diren arlo guztiekin: justizia, osasuna, segurtasuna. Lantzen ari den azkena datuak udal-mailara jaisteko aukerarekin lotuta dago. Horrek udalei aukera ematen die euren udalerraren errealitatea hobeto ezagutzeko, bilera honetan ikusiko den bezala.



Benetan kezkarria da 2022an zifrak handitu direla; Espainiako aurreko urte osoko biktimen kopurua egungo bera da. Horrek hausnarketa eskatzen du hazkunde garrantzitsu horren arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen identifikatzeko: 3.194 biktimizazio Bizkaian eta 2.524 emakume biktima, Ertzaintzaren datuen arabera.

Gogora ekarri du 45 urte zituen Rebecaren hilketak, abendu amaieran; eta Felisarena, gerora biktimatzat aitortu zuten 90 urteko emakumearena, ekainean semeak hil zuen.

Sexu-indarkeriari buruzko datuak aipatu ditu; izan ere, Bizkaian % 22 hazi da. Sexu-abusuen biktimak artatzeko krisi-zentroak ireki berri dituztela azaldu du, Espainiako Gobernuaren funtsen babesarekin.

Laburbilduz, mezu populistenen aurrean, Behatokiak datuak eskaintzen dituela nabarmendu du, eta, gainera, horiek kontsultatu nahi edo behar dituenaren eskura jartzen direla.

Emakumeak babesteko zer gehiago egin daitekeen jakitea da kezka nagusia; gai horretan jarri beharko litzateke arreta hausnarketa serioa egiteko.

Eskerrak eman dizkie osoko bilerako pertsoneri bertaratzeagatik, eta behin egoera zehaztuta, oztopoen eta korapiloen inguruan hausnartzeko duten gogoagatik. Horren arabera, emakumeen babesa nola hobetu pentsatu ahal izango da. Jarraian, Patricia Campelo andreari eman dio hitza, eta hark ongietorria eman eta aurkezpenen txanda hasi du.

Ondoren, Patricia Campelo andreak aurreko osoko bilkurako akta aurkeztu du, onartzeko. Akta baietsita onartu da.

Ordezkaritza berriak:

Patricia Campelo andreak ongietorria egin dio Etengabe Jabekuntza elkartearen Manuela Lopez andreari. Elkarrekin horrek Erlantza elkartearen ordezkatzen du Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseiluak Behatokian duen ordezkaritzan.

Josune Irabien andrea aurkeztu du. Emakunderen izenean dator, titularra den Miren Elgarresta andrearen ordez. Bileran diren eta etorri ez diren parte-hartzaileei buruz informatu du, eta etorri izana eskertu die berriro ere erakundeetako pertsoneri.

2022an emandako arretari buruzko datuen aurkezpena

Patricia Campelo andreak, grafikoekin, Bizkaiko arreta-zerbitzu publikoetatik 2022an jasotako lehen datuen sintesia aurkeztu du, baita datu horiek 2004tik izan duten bilakaera ere. Aurkeztutako datuak 2022ko zifren txostenetik datoz. Behatokiak urteko dokumentu mota hori txosten osoa egin aurretik prestatzen du. Azken hori azaroan argitaratuko dela jakinarazi du, udal datu guztiekin eta aurrerapen txostenean dauden datu eta adierazle autonomiko eta foral gehiagorekin. Txosten hori orain hasiko da erakusten.

Gizarte-arloko baliabideei dagokienez, hasteko, nabarmendu du **berehalako harrerako foru-zerbitzuaren** arreta-datuak gorakada izan dutela eta goranzko joera dutela, baita egonaldi ertainaren hazkundera ere. Adierazi du zifrek 2004. urtetik izan diren baliorik altuenak dituztela; bikoteak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren nagusitasuna mantentzen dela artatutako kasuetan, baita urteko erabiltzaileen ezaugarri nagusiak



ere, hainbat aldagairi dagokionez. Ildo berean, BFAko **egonaldi ertaineko harrera-zerbitzuaren** datuak aurkeztu ditu.

Foru Aldundiko Aholkularitza Juridikoko zerbitzuaren datuekin jarraitu du azalpena. 2022an, bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeriagatik aholkularitza jasotzen duten emakumeen kopurua % 26 handitu da aurreko urtearekin alderatuta, baina bolumena ez da iristen 2020ko osasun-krisiaren aurreko urteetako mailara. Datuen interpretazioari dagokionez, aurrerapen-txostenera jo du. Izan ere, erregistro-kontuez gain, kontuan hartu behar da datuek 2020an sortutako ziurgabetasun-egoera ere islatzen dutela, eta egoera horrek inhibizio-faktore gisa jokatu duela, eta proiektatzen jarraitzen duela esan daiteke.

Foru Aldundiaren Arreta Psikologikoari dagokionez, artatutako pertsonen kopurua nabarmen hazi da epealdian zehar, zerbitzuaren deszentralizazio progresiboak eta ordutegia zabaltzeak lagunduta. 2006ra arte, zerbitzua Bilbon zentralizatuta zegoen; hurrengo hamarkadan, deszentralizatu egin zen pixkanaka, eta, azkenean, zazpi arreta-puntu eskaini ziren lurraldean. 2023an hiru arreta-gune berri ireki direla jakinarazi du.

Foru Aldundiko Arreta Komunitarioko zerbitzuen datuekin jarraitu du. Zerbitzu horiek indarkeria matxistaren biktimei hurbileko arreta ematera bideratuta daude, komunitateko testuinguruan esku hartzeko ibilbideak garatzen dituzten programen bidez: gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, esku-hartze psikosoziala, laguntza soziojuridikoa, gizarte-laguntza... behar den kasuetan ostatu-laguntza barne.

Foru-baliabideen zerrendari amaiera emateko, **genero-indarkeriaren biktimia adingabeetan espezializatutako esku-hartze familiarreko foru-programa** aipatu du. Programa horrek 6 urte daramatza abian. 2019an goia jo zuen arreta kopuruak, eta beste zerbitzu batzuekin gertatu bezala, jaitsi egin zen osasun-krisiaren urteetan. Programa abian jarri zenetik, 2022a da babes-aginduekin artatutako kasuen kopururik altuena duen urtea, bai adingabeena, bai amena.

Patricia Campelo andreak Bizkaiko biztanleriari dagozkion baliabide autonomikoen datuak aurkeztu ditu. **Genero-indarkeriaren biktimia diren emakumeei telefonoz informazioa eta arreta emateko zerbitzu espezializatuaren** (24 ordukoa) datuekin hasi da, azken urtean Bizkaitik egindako 1.500 dei baino gehiagori erantzun baitie; batez beste, hilean 128 dei.

Etxebizitzaren arloko laguntzetan ikus daiteke, urtetik urtera, gora egin duela Etxebiden genero-indarkeriaren biktimia diren emakumeen espediente aktiboen bolumenak: 2022an, kopurua % 15 handitu da aurreko urtearekin alderatuta, eta 2013tik, espediente aktiboen kopurua % 124 handitu da. **Laguntza ekonomikoetan** ere, azken urteotan gora egin du egoera larrian dauden emakume esleipendunen kopuruak, kalteberatasun-maila altuenak dituztelako (2022an, % 40).

Polizia-arloari dagokionez, denboran zehar, biktimizazio-kopuruak goranzko joera du, etenaldi gutxirekin. 2022an ia bederatzi biktimizazio izaten ziren egunero; 2003an, berriz, bost. Aztertutako 20 urteetan, Ertzaintzak 52.746 gertakari erregistratu ditu Bizkaian.

Patricia Campelo andreak **Arlo Judizialeko** urteko zifrak azaltzen jarraitu du. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren datuen arabera, 2022an 3.450 salaketa erregistratu ziren Bizkaian (9 salaketa baino gehiago egunero). 2021eko datuekin alderatuta, 358 salaketa gehiago jaso ziren; 2005eko datuekin alderatuta, salaketen



bolumena % 147 hazi zen. 2022an 629 babes-agindu eman ziren, 2021ean baino % 49 gehiago. Aurreko ekitaldian erregistratutako datua ia bikoiztu egin zuten. Ukatutakoek, berriz, % 5 egin zuten behera. 2022an aginduen % 70 onartu zituzten eta % 30 ukatu.

Bestalde, **Biktimari Laguntzeko Zerbitzuak** 1.701 pertsona artatu ditu Bizkaian, aurreko ekitaldian baino % 3,8 gutxiago. Artatutako pertsonen % 83,2 emakumeak izan ziren. Espediente aktiboen % 61,4 genero-indarkeriarekin lotuta daude; familia barruko indarkeria espedienteen % 11,2 dira; eta sexu-askatasunaren aurkako delituak % 13,2.

Familia Elkargunearen Zerbitzuari buruzko informazioarekin amaitu du atal judiziala: 2022an, 129 adingabe bideratu dira Bilboko familia-elkargunera, amaren aldeko babes-agindua duten familietatik, eta kasu guztien % 34 dira. Kasu horien bolumenaren bilakaera grafikoki erakutsi du.

Aurkezpenaren azken zatian, Patricia Campelo andreak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak emandako datuak aipatu ditu. Izan ere, Bizkaian ospitale-arretan eta lehen mailako arretan atzemandako 14 urte eta gehiagoko emakumeen genero-indarkeriari buruzko datuak eman ditu. Nabarmendu du, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, detektatutako kasuen bolumena % 7 handitu dela ospitaleko arretan eta % 34 lehen mailako arretan. Bi kasuetan, aztertutako denbora-tarteko (2013-2021) zifrarik altuenak erregistratu dira. Bi grafikoren laguntzaz, osasun-erakundeen (ESI) arabera atzemandako kasuen bolumenean antzemandako aldeak adierazi ditu.

Azkenik, esku hartzeko eremu bakoitzeko guztizko zenbakien laburpena igo du; eta kasuen gero eta konplexutasun handiagoa azpimarratu du, baita erakundeen erantzuna (prebentziotik arretara) egokitzen jarraitzeko egiten den lana ere.

Galderak egiteko txanda hasi du: Arreta psikologiko deszentralizatuaren antolaketa berriari buruz galdetu da, eta Oscar Seco jaunak aldaketak, arreta-zentroen irekierak (gaur egun 10 daude guztira) eta haien ezaugarriak eta kokalekuak zehaztu ditu. Aurreko urtean antolaketa arazoak izan ondoren, azaldu du itxaron-zerrendak hobetu egin direla arreta psikosozialeko eta psikohezitzaileko beste zerbitzu batzuei esker. Teresa Laespada andreak zerbitzu horien azalpena eman eta emaitza positiboak azpimarratu ditu.

«Zifrak udalerrika» tresnaren garapena

Patricia Campelo andreak azaldu du lan-ahalegin handia egin dela eta datuak sistematizatu direla «Zifrak udalerrika» tresna eskaintzeko. Tresna hori Behatokiaren webgunean dago eskuragarri, «Errealitatea ezagutzea» tresnaren barruan. Tresna aurreko urtearen amaieratik dago martxan, eta 2023an garatuz joan da. Bere kokapena, helburua, eta aukeren berri eman du:

Tresna horrek emakumeen aurkako indarkeria matxistari buruzko informazioa biltzen du udal-mailan (udalerriak eta mankomunitateak), bileran ikusi diren esku-hartze arlo guztietan. Hiru indarkeria-motei buruzko informazioa biltzen du: bikotekide-bikotekide ohia, familia barrukoa eta sexu-indarkeria. Administrazioaren hiru mailetako zerbitzuetatik (udal-, foru- eta autonomia-administrazioetakoak) hartutako informazioa du: 133 datu-iturritatik, 14 esku-hartze-arlo eta azpi-arlotatik; Bizkaiko 112 udalerrietatik eta gizarte-zerbitzuen 9 mankomunitatetatik datozenak, 33 adierazleri dagokionez. Guztira 40.000 datu inguru ematen ditu.

Beraz, Patricia Campelo andreak azaldu bezala, tresnak hauetarako aukera ematen diela udalerriei eta mankomunitateei: Zerbitzu publikoetan indarkeria matxistagatik artatutako udalerriko/mankomunitateko



emakumeen kopurua ezagutzea; esku-hartze eremuaren arabera eskariaren tamainan dauden desberdintasunen ikuspegia lortzea; eta baliabideetarako sarbideari buruzko informazio eguneratua izatea (abian den urtea). Aurtengo hobekuntza azpimarragarria da datuen historiko bat eskuratzeko aukera edukitzea, 10 urteko (2013tik) adierazle propioak monitorizatzeko aukera emanda.

Datuak eta grafikoak lortzeko adibide bat jarri du, kasu honetan Santurtzi, eta azaldu du, gainera, aukera ematen duela Bizkaiko beste ingurune eta lurralde-maila batzuekin konparazioak egiteko, eta nola deskarga daitekeen historikoa Excel batean, Gordexolako udalerriaren adibidea erabilita.

Ertzaintzarekin, Justiziarekin eta abarrekin adierazle berriak lantzen jarraitzen dutela jakinarazi du, hala nola erasotzaileei buruzkoak, errealitatea hobeto ezagutzen jarraitzeko.

Ondoren, Patricia Campelo andreak **galderak egiteko txanda** hasi du: Hainbat iturritatik datuak baturik dauden galdetu dute, eta hizketaldiak iturriak ugaritzeko egiten ari diren lanaren inguruan hausnartzera eraman du.

Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusiaren ikerketa berriak eta beste gai batzuk

Patricia Campelo andreak ikerketa kualitatiboko beste ikerketa batzuen berri eman du, hainbat ikuspegi eta gai txertatzeko egin direnak, hala nola sexismoa aisialdian eta jaietan, prostituzioa eta beste batzuk. Guztiak Behatokiaren web orrian egongo dira eskuragarri, kontsultatzeko.

Azkenik, sexu-indarkeriaren arretarako krisi-zentroen irekierari buruz galdetu dute, eta Óscar Seco jaunak azaldu du sexu-indarkeriaren arreta-eredu bat lantzen ari direla. Eredu horren bidez, presako arreta eskaini nahi da, ostatu hartuta, 24 orduko orientazioarekin, laguntza psikohezitzailea eta psikosoziala bulego-ordutegian, bi espaziotan banatuta: bata urgentziazkoa eta emakumearen premien arabera, eta bestea dinamizaziorako, sensibilizaziorako... Gainera, Web-era sartzeko kanal bat bukatzen ari dira. Aurreikusitakoaren arabera, abenduan jarri ahal izango da martxan.

Zerbitzuetara jotzen duten emakumeen profilei buruzko hausnarketa egin da, baita bertaratzen ez direnengana iristea ahalbidetzen duten datu-iturriak aurkitzeko beharrari buruz ere.

Esker ona eta agurra.

Hartutako erabakiak

1. Aurreko bilkurako akta onartzea.
2. Bilera honetan azaldutako dokumentuak baliozkotzea.

